# Bertso zaŕak

## I

Inhauta'renak

Ondaŕabia, eŕi txikia
Erdian plaza zabala
Alargun batek antxe daukozak
Ederak iru alaba.
Itxal aundiaz eskatu nion
Emon deidala zaŕena
Ŕespuesta laxter emona
Mutil pobria nintzala.
– Mutil potriami ta'naz ni bere
Zu panaderen alaba
Ogi bertan jango genduke
Zure ta nire kaudala.

---

## Sta Agueda'renak.

### I

Oŕa or goian lau ardi
Laurekin zortzi belaŕi
Etxe ontako zaldun gastiak
Uŕé goŕia dirudi.

### II

Okan txiki goŕi betia
Aurten da zure urtia
Ŕialtxu bi emon eskero
Urte guztiko bakea.

### III

Sartzen ditus te zugateak
Aretxak eta zagaŕak
Andik aŕpitik ibiliteko
Emaztia ta senaŕa.

IV

Zure ortuen madari
Adarak ditu amabi
Etxe ontako dama gaztiak
Merkatariak amabi.

V

Etxe ontako andra zabala
Leku oneko alaba
Bidian ezaten etori gara
Limosneria zaridla.

VI

Erotapian aria
Aren gañian txoria
Ezetzen baten sartun liteke
Maritxu zure garija.

VII

Etxe ontako Marija
Orintxe esango dotzut egija
Hin bat ariñen ek dri egizu
Olo pintaren abija.

---

Senaŕa fraile fantzita emaztearekin.

— Leizita zuria daukazu.
Andra gaztia.
— Ondotxu egosita.
Aita frailia.
— Eskutxu ziriak dozuz,
Andra gaztia.
— Guantepian ibili ta.
Aita frailea.

– Gizonik bai al dozu,
Andra gastia?
– India'tara juan zan,
Aita prailla.
– Zenbat seme daukazus,
Andra gastia?
– Lemetsa bi daukadaz,
Aita prailia
– Ze opesio daukoe
Zure semiak?
– Eskolak ikastia,
Aita prailia.
– Suak erreko al zaitu,
Andra gastia!
– Beori kiskuntu dala,
Aita prailia.
– Urak eroango al zaitu,
Andra gastia!
– Beori txalupa dala,
Aita prailia.

---

I

Andra bat ikusi dot
Igaro dan astian
Gizonaren prakakin
Taberna batian.

II

– Lelen gotxua da-ta
Pitxarra bete egixu
Orek, gizonaren prakak
Prenda ipini egixus

Argitaralduna

III

— Ez dan zure zenarák
Zuzak baño besterik
Ez ditzut nik emongo
Praka-truke ardorik.

IV

— Taberneru andria
Liguenik ba-dezu?
Ardaoaren trukian
Neuk irungo ditzut.

V

— Liguena ba' det baña
Ez ditzut emongo
Andra ardao zaliak
Ez luke irungo.

---

I

Agur lora eder ori
Zugaitik noa mundutik
Despedidado aguira
Egitera nator zuri

II

Zu zariala medio eta
Juaten ba-naz lurpera
Gero negarák et malkoak
Alperik izango dira

---

I

Madalen madariko
Andra ondradia
Iñork ez dau izango
H danik deungia

II

Ilian mudantzia
Dakar erópiak
Asajera onetik
Asten dau udia

III

Udako erópiak
Eskojia dauko
Aurten egin dau promesa
Urkiola'rako.

IV

Bere ama lagunkat
Beste mutill bategaz
Urkiola'ra juan da
Promesak egiñaz.

V

Atzue Urkiola'n
Egin dabez langadu
Eurak Otxandiora
Dira abijadu.

VI

Otxandioko ostatuan
Ule-zuri'anean
Bijak egon ziran
Umore onean.

XII

Madalen'ek dirautso
Juene maitea
Bijar Arratzuen daukagu
Bijar piestia.

XIII

Arratzu'ko abadiek
Kontidautso gaitu
Bijar eberdirako
Ara bear dogu.

---

Amak ezkondu gura nau
Amabost urtekin
Lerrarak bazituan
Larogei berakin.
Ora neskatila gazte
Agure zarakin
. . . . . . .
. . . . . . . .

Bentanatik kanpora
Botako dok nik ori.
. . . . . . . . .

— Nik gura dodana da
Neure gustokua
Ea ogei urtekoa.
— Ixilik egon adi neska.
Aberatsa dona ori
Urte bat edo bi pasata
Ilgo dona ori
Eta orduen ongi, bizi ko aiz ongi.

Gipuzkueraz apurtxo aldatua

I

Esaten ditunenak
Egiak ba-dira
Markiña'n iru mutil
Eskontzen ei dira -

II

Markiña'n iru eta
Okaña'n beste bi
Ora eurak non diran
Ia dozen erdi

---

I

Akera juan zan
Ortuа domatzen
Akerak ortua, ken
Geure ortutxutik, ken, arraken.

II

Txakura juan zan
Akera domatzen
Txakurak akera
Akerak ortua, ken
Geure ortutxutik, ken, arraken.

III

Makila juan zan
Txakura domatzen
Makilak txakura
Txakurak akera
Akerak ortua, ken
Geure ortutxutik, ken, arraken.

[illegible]

0.2.3.2.4./1.5

IV

Sua juan zan
Makila domatzen
Suak makila
Makilak txakurá
Txakurák akerá
Akerák ortua, ken
Geure ortutxutik, ken, áraken.

V

Ura juan zan
Sua domatzen
Urak sua
Suak makila
Makilak txakura
Txakurák akerá
Akerák ortua, ken
Geure ortutxutik, ken, áraken

VI

Beia juan zan
Ura domatzen
Beiak ura
Urak sua
Suak makila
Makilak txakurá
Txakurák akerá
Akerák ortua. ken
Geure ortutxutik, ken, áraken.

## VII

Sokia juan zan
Beia domatzen.
Sokiak beia
Beiak ura
Urak sua
Suak makila
Makilak txakurá
Txakurák akerá
Akerák ortua, ken
Geure ortutxutik, ken, áraken.

## VIII

Sagua juan zan
Sokia domatzen.
Saguak sokia
Sokiak beia
Beiak ura
Urak sua
Suak makila
Makilak txakurá
Txakurá akerá
Akerák ortua, ken
Geure ortutxutik, ken, áraken.

## IX

Katua joan zan
Sagua domatzen.
Katuak sagua
Saguak sokia
Sokiak beia
Beiak ura
Urak sua
Suak makila
Makilak txakurá
Txakurák akerá
Akerák ortua, ken
Geure ortutxutik ken, áraken

X

Atzua juan zan
katuk domatzen.
Atzuak katua
katuak sagua
Saguak sokia
Sokiak beia.
Beiak ura
Urak sua
Suak makila
Makilak txakurá
Txakurák akerá
Akerák ortua, ken
Geure ortutxutik, ken, araken.

XI

Agueria juan zan
Atzua domatzen.
Agueriak atzua
Atzuak katua
Katuak sagua
Saguak sokia
Sokiak beia
Beiak ura
Urak sua
Suak makila
Makilak txakurá
Txakurák akerá
Akerák ortua, ken
Gure ortutxutik, ken, áraken.

XII

Eriotzia juan zan
Aguerea domatzen
Eriotziak aguerea
Agureak atzua
Atzuak katua.. . t. a.

I

Ezak bat:
Gure Jauna bera da bat
Berak salbauko gayozak.

II

Ezak bi:
Érromako altara bi
Gure Jauna bera da bat
Berak salbauko gayozak.

III

Ezak iru:
Iru Trinidadeak iru
Érromako altara bi
Gure Jauna bera da bat
Berak salbauko gayozak

IV

Ezak lau:
Lau ebangelistiak lau
Iru Trinidadeak iru
Érromako altara bi
Gure Jauna bera da bat
Berak salbauko gayozak.

V

Ezak bost:
Jesukristo-ren bost lagak bost
Lau ebangelisteak lau.
Iru Trinidadeak iru
Érromako altara bi
Gure Jauna bera da bat
Berak salbauko gayozak.

VI

Esak sei:
Sei argiziriyuak sei
Jesukristo'ren bost lagak bost
Lau ebangelistiak lau
Iru Trinidadeak iru
Erromako altara bi
Gure Jauna bera da bat
Berak salbauko gayozak.

VII

Esak zazpi:
Zazpi sakramentuak. zazpi
Sei argiziriyuak sei
Jesukristo'ren bost lagak bost
Lau ebangelistiak lau
Iru Trinidadeak iru
Erromako altara bi
Gure Jauna bera da bat
Berak salbauko gayozak

VIII

Esak zortzi:
Zortzi dira zeruak, ~~zortzi~~
Zazpi sakramentuak. ~~zazpi~~
Sei argiziriyuak. sei
~~Bost~~ Jesukristo'ren bost lagak bost
Lau ebangelistiak. lau
Iru Trinidadeak iru
Erromako altara bi
Gure Jauna bera da bat
Berak salbauko gayozak.

## IX

Ezak bederatzi:
Bederatzi ornamentuak, ~~bederatzi~~
Zortzi dira zeruak, ~~zortzi~~
Zazpi sakramentuak, ~~zazpi~~
Sei argizirijuak, sei
~~Jesu~~ Kristoren bost lagak, bost
Lau ebangelistiak, lau
Iru Trinidadeak iru
Erromako altara bi
Gure Jauna bera da bat
Berak salbauko gayozak.

## X

Ezak amar:
Amar onamdamentuak, amar
Bederatzi ornamentuak, ~~bederatzi~~
Zortzi dira zeruak ~~zortzi~~
Zazpi sakramentuak, ~~zazpi~~
Sei argizirijuak, sei
Jesukristoren bost lagak, bost
Lau ebangelistiak, lau
Iru Trinidadeak, iru
Erromako altara, bi
Gure Jauna bera da bat
Berak salbauko gayozak.

XI

Esak amaika:
Amaika mila aingeruak
Amar mandamentuak
Bederatzi ornamentuak
Zortzi dira zeruak
Zazpi sakramentuak
Sei argizaripuak sei
Jesukristoren bost lagak bost
Lau ebangelistak lau
Iru Trinidadeak iru
Erromako altara bi
~~Jesukristo~~ Gure Jauna bera da bat
Berak salbauko gaituzak.

XII

Esak amabi:
Amabi apostoluak
Amaika mila aingeruak
Amar mandamentuak t.a.

. . . . . . . .

---

I

~~H~~ Neska zar, zar, zar
Denbora pasar
Zergatik lenago
Ezkondu ezinan?
— Iñork ez esan
Neuk ezin esan
Orregatik ni
gelditu nintzan
Tan, tarian, tan.

I

Agure batzuk egoran
Tabernan ordirik
Begira egon nintzan
Eskiña batetik.

II

Barez itxota egon nintzan
Aren buruko txiñakin
Batek ezaten eban:
"Txapela palta det"
Bestiak ezaten eban:
"Pipia palta det"

III

Taberneriak diño:
- Kontua neuria.
- Eztonat pagako
Euk ba-dakik zergatik
Garia egon dona
Eta orexegatik.

I

Zeu ta ni bere denbora baten
Adiskideak giñian
Bitartekoen ezagaitik
Ondo atzeratu giñian

II

Neure maitea ez egin iñoiz
Bitartekoen ezanik
Bitartekoak ipiñi dauteu
Platera okela barik.

---

I

Arako antxiñeko
Bi oren kontuek
Ixilik egon arren
Ez dande aztuek

II

Pasaten nazenian
Zure atetatik
Negarak urtetan daust
Begi bietatik.

III

Ezaten zeuntanian
Mantekia legez
Biziko ninzala ni
Erregiña legez.

IV

Ezin bizi ninteke
Erregiña legez
Orain prigiduten dot
kipulian legez

V

Arako antziñeko
Erromera zara
Ari zer esan deustan
Akordetan zara?

---

Din dan, nor il da?
– Peru zapataria.
– Zer egin dau pekatu?
– Auzoko txakurra urkatu
Txitxilupian beratu
Txela gomiam zikatu
Aren emazte koitadiak
Amar diru pagatu.

---

Baga, biga
Irua, laga
Boa, seia
Zapa, zotza
Berakatza
kirikialatza
Erropa.

---

I

Goizean goizekoa
Arratzaldean bi
Sarri ikusten dona
Botila baltz ori

II

Errezoia daukazu
Emazte Apaiña
Ogetik jagiteko
Eperdi nagia.